

TOKIKOM

2014ko ekaina | 138. zenbakia


ai kor!

txorierriko aldizkaria

Gure esku dago!



URTZ TALDEA LOIU ETA ALDEKONEKO JAIAK DERIO DANTZAN LIBURUA



**VENTA
AL PÚBLICO**

JUFER
Mueble tapizado

**CENTRO DE
OPORTUNIDADES**

**GARANTÍA
TOTAL**

FÁBRICA DE SOFAS



**Soilik
EGUN bakar
BATZUETAN**

**Gure jarduera
ezagutzera
emateko**

**Txorierrri etorhidea, 24
(Sondika-Derio errepidean)
48180 LOIU
94 471 24 38**

800 ARTIKULU

**baino gehiago ditugu salgai:
3+2 sofak, chais longueak, relax...
ordaindu ez diren eta
baliogabetutako eskaeretatik
datozen produktuak dira**

% 10 -ko

deskontua, Txorierrin bizi bazara



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Jon Legarreta, Eder Merino, Gaizka Peñafiel, Xabier Díaz, Derioko Liluraturia taldea, Inisitue Gazte Asanblada, ...*eta kitto* aldizkaria, Judith de Prado, Jon Jauregi, Aner Mentxaka, Itsasne Zubiri, Jose Angel Mentxaka, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



diruz lagundutako aldizkaria



12 Urtz taldea



22 Loiu eta Aldekoneko jaiak



28 Derio Dantzan liburua

- 4** Eritxia
- 5** Laburrak eta albisteak
- 12** Gurean izan da... Urtz musika taldea
- 14** Gaztea eta... Maialen eta Amaia, errugbi jokalaria
- 16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
- 18** Txorierritarrok 100. kilometroan
- 22** Loiu jaiak
- 25** Aldekoneko jaiak
- 26** Magalarte Lezamako Txakolina
- 28** Derio dantzan liburua
- 30** Kukubel aisialdi taldea
- 32** Berbalagunen txokoa
- 33** Txorierriko alaitariak
- 34** Teknologia
- 35** Aikorrizketa... Gure erdaldunak
- 36** Sukaldaritza
- 37** Denborapasa
- 38** Agenda





JON LEGARRETA
(Abokatua)

Homeopatia, egia ala iruzurra, hori da koska. Zientziaren ikuspuntutik, gezur hutsa; eta kontsumitzaileen aldetik ere, iruzurra. Aztertu dezagun zergatik esaten dutan aurrekoa. Homeopatia hiru "lege"tan oinarritzen da. Lehenengoa: sintomak sortzen dituen kausak sintomak sendatu ere sendatzen ditu. Bigarrena: substantzia bat zenbat eta gehiago diluitu, hainbat eta eragin handiagoa edukiko du. Eta hiruga-

Homeopatia, sendagaia?

rrrena: urak "oroimena" dauka. Hau guztia horrela izango balitz, esan nahiko luke, esate baterako, zianuroarekin kutsatu den pertsona bat zianuroarekin sendatuko litzatekeela; ardo-tanta bat duen ur botila bat edanez gero, arinago mozko-tuko ginatekeela; eta ura garbitzen duen sistemak ez luketela hura garbituko, urak Historian zehar jasotako kutsadura guztia gogoan izango lukeelako. Beraz, argi dago zientifikoki ez daukala inongo oinaririk.

Baina argitu dezagun zelan egiten den produktu homeopatikoa bat. Lehenengo eta behin, printzipio aktibo-tanta bat 99 ur-tantarekin (laktosa) diluitzen da. Hau 1CH bezala ezagutzen da. Ondoren, disoluzio berriaren tanta bat beste 99 ur-tantekin diluitzen da: 2CH. Eta horrela, etengabe. Jakin behar dugu, kimikaren legee jarraituz, 12CHtik gorako disoluzioetan ez dela ezta printzipio

aktiboaren molekula bat ere mantentzen. Eta produktu homeopatikoa batzuk 3.000 aldiz ere diluitu dira! Orduan, zer ari gara kontsumitzen? Argi dago: ura edo laktosa.

Askok "niri ondo egiten dit" esango diozue zuen buruari, eta egia izango da sendatzen garela, baina askotan gaixotasun arrunt bat, gripea adibidez, berez sendatzen da, edo askotan aipatu dutan bezala, plazebo efektuari esker egiten du. Sendagai baten eragina benetakoa izateko, plazebo efektuaren eragina gainditu behar du; osterantzean, ez da sendagaia.

Hau guzti hau aztertu ondoren, zergatik saltzen dira farmazietan homeopatia-ko produktuak? Erantzuna berehalakoa da: izugarritzko negozioa delako. Gainera, esan beharra dago, pilula horiek, ura edo laktosa direnez, ez digutela kalterik egingo, nahiz eta pote osoa irentsi. Hori bai, daukan azukrea dela-eta diabetikoek kontuz ibili beharko dute.

Futbolaren esklabutza

Jaun-andreok, hemen dago urteko ikuskizuna. Kolonbiatik Japoniara, mundua energia-zitadaz tinko jartzen duen jaialdia. 2014ko Munduko Futbol Txapelketa hasi besterik ez da egin, eta Shakirak ere ondo ei daki festagiro orok bere ereserkia behar duela; horregatik gogotsu jarri da silababakarren sabel-dantzari egurra emanez. *La la la* du izena jaio berriak.

Brasil urteko bigarren aratusteetan dago murgilduta. Herrialde desberdinetako aurpegiek; lumek, banderek eta samba dantzariak bat egiten dute kaleetan, milaka umek beren gorputzari prezioa jartzen dioten kale berberetan. Bai,

futbolaren negozioak haur irudia dauka Brasilen, eta apustu-etxeetan dirua baino gehiago da jokoan. Txapelketa dela-eta Unicefek azpimarratu duenez, 250.000 adin gabekok saltzen dute euren gorputza, sexu eta ikuskizun gose diren milaka turistentzat. Futbola ke-gortina da Brasilen. Adinez txikikoen prostituzioaren orbana ezkutatzeko maindirea.

Sexuaren negozioak ez du etenik. Kale izkinetan tolesgabetasuna bortxatzen da. Esklabutza sustatzen da. (Diruaren hotsa). Erritmoa frenetikoa da, futbolaren izenean etorkizunak profanatzen dira etengabe. Bitartean, jendez gainezka egiten duten zelai berdeen atzean,



EDER MERINO
(Kazetaria)

ereserkiekin batera eta banderen kolorez margotutako aurpegien atzean, *La la la* disko-jogailuetan entzuten jarraituko da haur aurpegia daukan drama itzalpetuz.

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

OPTIKA IKUSLAN
Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87
Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa
Urbil 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)
-Especialitate guztiak zentro bakar batean
-Aurrekontua doan
-Especialitateak: umeak



Udako argazkiak

Aurreko urteetan bezala, Altzora Sondikako euskara elkarteak argazki lehiaketa antolatu du udako oporren haritik. Argazkiak uztailaren 1etik irailaren 12ra arte bidali behar dira altzora.ee@gmail.com helbide elektronikora, eta parte-hartzaile bakoitzak gehienez argazki bi aurkeztu ahal izango ditu lehiaketara. Argazkiarekin batera datuok ipini beharko dira: izen-abizenak, telefono zenbakia, helbide elektronikoa eta argazkia non eta noiz atera den. Nahi izanez

gero, argazkiaren izenburua ere idatzi ahal izango da; eta lerro batzuk ere argazkiari buruz. Irabazleak sari bi edukiko ditu aukeran: lagun birentzako bazkaria Zerurena Sondikako jatetxean, edo landetxe batean gau bat ematea. Beraz, badakizue, oporrak Euskal Herrian zein Euskal Herritik kanpo, hondartzan zein mendian, hirian zein herrian... ematen dituzuela ere, argazki-kamara hartu eta momentuak harrapatu. Udako argazkiek saria dute-eta.

Azken hilabeteotako gertaerak batu dituzte Loiun

Loiun laztana elkarteak bideo bat editatu du eta herrian 2013ko azken sei hilabeteetan eta 2014ko lehenengo hilabeteetan izan diren gertaerak jaso dituzte. "Loiun 47 urte eman ostean, klaratar monjek agur esan ziguten eta momentu hori grabatu genuen. Baita Iraia Iturregi loiuztarrak Bilboko jaietan emandako pregoia ere, herritik idiekin egindako kalejira, Elotxelerriko jaiak, abadeen ortua, motorzaleen kontzentrazioa...". Era berean, edadeko emakumeen eta gizonen testigantzak batu dituzte. Elkarrizketatuek haurtzaroraren berri eman dute bideoan eta herriak eduki duen bilakaera azaldu dute. Loiuko abesbatzak jotako *Herri txiki batean* abestia ere jaso da. Orotara 50 minutuko bideoa egin da.

Elkarteak lanaren 200 ale atera ditu. Ekainaren 30ean, arratsaldeko 7:30ean, eta San Pedro eta Santa Luzia jaien egitarauaren barruan, bideoaren emanaldia izango da Ludotekan. Gainera, 25 ale banatuko dira bertara azaltzen direnen artean. Bideoa doan izango da eta ale bat eskuratu nahi duenak elkartearekin jar daiteke harremanetan, edo udal-etxean galdetu. "Etorkizunerako dokumentala da, Loiun bizi izandako momenturik adierazgarrienak batzea helburu duena, gurean zer gertatu den jakin dezagun. Herria maite duten guztiei dago zuzenduta".

BIZKARGI
TABERNA ETA JAHARIA
Urkiola, 6 DERIO 944541655

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

MARMOLGINTZA
GOYO
SURALDE-GAINEKOAK ORRAK HILERRIAK
Ugaldeguren 1 ind. 10-8 nabes
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Fax: 94 454 50 63

KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA
Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

HABAGITEGIA
URDAITEGIA
IMAZ
MUNDIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskerrik asko
etortzeagatik

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK
lasai
Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata
Larrabarri, 1 Ionia - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

Logotipo lehiaketa, Ekidazuren urteurrenaren haritik

Hamahiru urte bete dira Ekidazu Lezamako abesbatza sortu zenetik eta urteurrenaren haritik logotipo lehiaketa antolatu dute abesbatza-koek. Azaldu duten moduan, lehiaketak herrian eta inguruan kantu korala sustatzea du helburu, eta abeslariak zein publikoa musikara erakarri. Bertan Txorierriko edonork har dezake parte.

Logotipoan "EKIDAZU ABESBATZA"ren 13. urteurrena" agertu behar da eta formatu bitan aurkeztuko da: alde batetik, A4 tamainako paperean; eta bestetik, CDan. Azken horri dagokionez, irudiak gutxienez 300ppko bereizmena eduki behar du eta jpg edo tiff formatua eduki dezake; irudi bektoriala bada, hobeto.

Lanak A4 tamainako gutun-azal itxian sartu beharko dira eta abuztuaren 15a baino lehen helbide honetara bidali: Ekidazu abesbatza. Uribarri Topalekua. Garaioltza 133-E. 48196 Lezama. Gutun-azalaren barruan beste gutun-azal bat sartuko da parte-hartzailearen datuekin.

Irabazlea abesbatzaren kideek eurek aukeratuko dute eta 200 euro eta ohorezko abestia jasoko ditu saritzat. Saria Lezamako jaietan emango diote. Txapelketara bidaltzen diren lan guztiak erakusgai ipiniko dira.

Laguntza sozialeko etxebizitzak kudeatzeko proiektua, Derion

Derioko Udalak eta Eguzkilore Fundazioak akordio bat egin dute eta, horren bidez, Udalak sei etxebizitza utzi dizkio Fundazioari, laguntza sozialeko programa bat kudea dezan. Gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan edo ahultasun handiko egoeran dauden familiek etxebizitza bat eskuratzeko erraztasunak ematea du programak helburu. Akordioa bost urtean egongo da indarrean, baina, alde biak ados badaude, hura luzatzeko aukera izango da. Programan sartu ahal diren lagunak Udaleko gizarte-zerbitzuetatik bidaliko dira fundaziora. Onuradunek laguntza sozialeko banako plangintza bati jarraitu beharko diote, beren egoera aztertu eta gizarteratzeko.

Dagoeneko, lau familiak eskuratu dute sei etxebizitzetako bat. Familiek 350 euroko alokairu soziala ordaintzen dute hilean. Hirurehun euro etxebizitza ordaintzeko erabiltzen dira, eta gainerakoa aurrezpen-plan batera bideratzen da. Beren egoera hobetzen denean eta etxebizitza uzten dutenean itzuliko zaie diru hori. Derion gizarte arloan abian jarri diren zerbitzuak biribiltzeko egin da akordio hau; jantoki soziala eta elikagai bankua daude beste zerbitzu horien artean. Eguzkilore Fundazioa Caritas Bizkaiko erakunde bat da, eta Euskadiko pertsona guztiek etxebizitza duin bat izateko duten eskubidea bermatzea du helburu.





**ASADOR
ARAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tfnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

Tel./fax: 94 452 06 64
Torrelagolti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante

JANA JATETxea



Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak

RUBEN

ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lohandakari Salazarre plaza, 3
48170 Zamudio
94 452 14 49

ZAMUDIO MOTOR



94 452 1616
94 452 1624

Poi. Torrelagolti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

R P A

MAYORISTAS INFORMATICOS

**ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA**

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>



Motorren kontzentrazioa, Loiaun

Loiueko Udalak eta Txoribikers taldeak motorren kontzentrazioa antolatu dute uztailaren 19rako. Ekitaldia hirugarren aldiz egingo da aurten eta egun osoan zehar ekintzak izango dira herrian. Kontzentrazioa goizeko 10etan hasiko da. Txosna irekiko da eta parte-hartzaileek izena eman beharko dute udaletxeko eskaileretan, bost euro ordainduta.

Goizeko 11etan ibilbide librea egingo da herriko tabernetatik, eta 11:30ean parte hartzaile guztiak batuko

dira herrigunetik atera eta ibilbidea elkarrekin egiteko. Txitxi-burruntzia eskainiko da bazkaltzeko orduan eta puzgarriak eta umeentzako jokoak izango dira arratsaldean. Ibilbidea egingo da Txorierritik eta arratsaldeko 6:30ean “motorrak hegazkinen aurka” ekimena izango da. Babel Covers taldeak kontzertua emango du eta iluntzeko 8:30ean saiheski jana egongo da. Eguna amaitzeko, motorzaleek jaitsiera egingo dute eskuan zuzi bat daramatela. Jaitsiera gaueko 10:30ean izango da.

Uritarra gora; Iraultza behera

Uritarra Larrabetzuko futbol taldeak eta Iraultza Zamudioko futbol taldeak Bizkaiko Lehen Mailan jokatu dute aurten.

Larrabetzuarrek liga irabazi dute eta Lehen Mailara igo dira; zamudioztarrak, berriz, Bigarren Mailara jaitsi dira.

Denboraldiaren hasieran, jokari gazte asko hartu zituen Uritarra klubak, eta, horren ondorioz, ez zekien zelan ibiliko zen taldea. "Taldea gaztea dugu, ilusioz betea eta konprometitua. Eta herriak bat egiten du gurekin. Azken partidaren hiru autobus abiatu ziren Larrabetzutik Gernikara, guri laguntzera. Lehenengo taldeak denboraldi borobila egin du, eta talde gazteak eta kadetear 4. postuan amaitu dute liga. Oso pozik gaude", esan du Juan Alaiogoikoa presidenteak.

Beste alde batetik, Iraultza taldeak denboraldi txarra egin du eta azken postuan amaitu du Liga.

"Oso zaila da igotzea; orain urte bi lortu egin genuen, eta aurtten, tamalez, berriro zulora.

Denboraldia hasi baino lehen jokari batzuek alde egin zuten, eta beste batzuek min hartu zuten urtean zehar. Kalte egin digu horrek. Datorren denboraldirako aldaketak egongo dira: entrena-tzaileak, esate baterako, ez du taldean jarraituko”, esan digu Oier Garmendia kapitainak.

Pelukeri Estetika

94 455 81 44

Anguleri 2, beheia Larraitzu-Bizkaia

FRUTAK **BARAZKIAK**

Produktu ekologikoak
Hainbat ogi eta pastel

Gaztelumendi, 3 - beheak 48195 Larrabetzu 94 455 89 19



SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

bai
euskarari

Bai Euskarari Zuztagina,
alor sustentatzen dituzten
erakundeekin elkarlanean lan egiten

zuztaginaren@euskara

bai
urrats biziak

zuztaginaren@euskara

zuztaginaren@euskara

www.zuztaginaren.org

www.zuztaginaren.org

www.zuztaginaren.org

www.zuztaginaren.org



Artoaren ibilbidea

a: Ido Andres

Maiatzaren 15ean San Isidro Eguna ospatzen da; baserritarren eguna. Eta data horren haritik eskolako umeei ekin-tza berezi bat egin zuten. Hala goizean soro artean ibili ziren, baserriz baserri, artoaren ibilbidea egiten. Olatxu baserrian errota ikusi zuten martxan, eta Basagunen, artzainek ardiei ilea zelan moztzen dieten. Sarrikolan artoa ereiten eta garantzen ikasi zuten; eta Goiritxu

baserrian aukera eduki zuten eskolan jaten dituzten elikagai asko ikusteko.

Bestalde, Musika eskolakoek ikasturte-bukaerako emanaldia antolatu zuten maiatzaren 30rako. Andra Mari elizan izan zen eta hauek hartu zuten parte: Txorierri gazte orkestra, Talde instrumentala, Larrabetzu Ganbara Taldea eta Izar Argia abesbatza. Maiatzean ere ikurrinaren aldeko ekitaldia egin zen herrian, larrabetzuar-andana handi bat batu zuena.



Unai Ibarra, klasikoazalea



Udaberrian, hainbat klasiko egiten dituzte txirrindulari profesionalek. Baita zaletuek ere. Haietako bat da Unai Ibarra sondikaztarra. Iaz, Paris-Roubaix lasterke-

tan eta Flandeseko Itzulian hartu zuen parte, eta aurtien, Amstel Gold Race eta Liège-Bastogne-Liège lasterketetan. Probak horietan ez da dago sailkapenik; txi-

rrindulariek lasterketa amaitzea baino ez dute helburu. Eta Unai biak amaitu zituen.

Amstel Gold Race apirilaren 19an egin zen Holandan. Unai zortzi ordu eman zituen bizikleta gainean, 250 kilometroko ibilbidea amaitu ahal izateko. Lasterketa hori oso gogorra izan zen, baina askoz gogorragoa izan zen Liège-Bastogne-Liège lasterketa. "Inoiz egin dudan gogorrena izan zen: haizeak gogor jo zuen eta aldapan gora eta behera ibili ginen 278 kilometroan zehar. Gainera, erori egin nintzen. Dena dela, oso pozik nago biak amaitu nituelako eta txirrindularien arteko giroa itzela izan zelako".

Unai datorren urtera arte utziko du albo batera bizikleta. Udan, sokatiran arituko da Laukiz taldearekin. Datozen asteotan, Euskadiko txapelketak jokatu dituzten baita kategoriatan, eta irailean Munduko Txapelketan hartuko du parte Estatu Batuetan.

Goitioltzako jaiak

a: Ido Andres

Goitioltza Lezamako auzoan jaietan egongo dira uztailean, eta jai-batzordeak guztientzako ekitaldiak prestatu ditu hilaren 11tik 13ra bitartean.

Uztailak 11, barikua

–18:00: Kalejira dultzaineroekin, eta txupinazoa.

–18:30: Puzgarriak eta umeen jolasak.

–22:00: Erromeria Dantzari taldearekin.

Uztailak 12, zapatua

–10:00: “Goitioltza ezagutu”, Zorritzetan euskara elkartearen eskutik. Kopaua, Larraben.

–12:00: Kurutze dantza taldearen emanaldia.

–13:00: Paella Txapelketan izena ematea (mahaiak eta aulkiak eska daitezke uztailaren 9ra arte: 1 mahai + 6 aulki: 10 euro).

–14:00: Paellak aurkeztea eta sariak banatzea.

–17:30: Olinpiadak.

–22:00: Kontzertuak: Artxoak + Kartzarot + Oihan Vega.

Uztailak 13, domeka

–08:30: “Goitioltza en duro” txapelketan izena ematea.

–10:00: Txapelketako proba ofiziala.

–13:00: Bertso-txakolin dastatzea, Etxahun Lekue eta Arkaitz Estiballesekin.

–14:30: Txapelketako sariak banatzea eta jaien amaiera.



a: Inisitue Gazte Asanblada



Duintasuna berreskuratu duela dio Gabixolak

Gose greban 47 egun eman ostean, Jose Mari Lejardi *Gabixola* garraiolariak ekainaren 16an amaitu zuen greba. Hori maiatzaren 1ean hasi zuen Zamudion, bere sektoreak gaur egun duen egoera larria salatzeko. Oso nekatuta eta ahul topatu genuen, baina pozik eta harro egin-dakoarekin. Azaldu zigun moduan, bere borroka baliagarria izan da eztabaida sortzeko, eta gehiengo sindikalak babesa eta solidaritatea adierazi diote. Gainera, Gutun Sozialarekin bat egiteko gonbitea egin diote. “Borrokak ematen duen indar hori daukat, eta autoestimua eta dignitatea berreskuratu egin ditut, izan ere oso gogorra da edozein lan baldintza onartu behar denean”. Bere esanetan, bere borroka argi adierazi du sinesten denaren alde egitea merezi duela, eta gustatuko litzaioke langile guztiak horretaz jabetzea.

Gabixolak esan digu Zamudion etxean bezala sentitu dela eta oso eskertuta dagoela zamudioztar guztiei. “Alkatea, medikua, erizainak, Lagatzu, Gazte Asanblada, Langabetuen elkarteak, herritarrak...”. Era berean, esker oneko hitzak eduki ditu Torrelarragoiti industrigune ondoan ipinitako kanpalekuraino animoak ematera hurbildu zaizkien guztientzat. Gose grebak iraun dituen egunetan zenbait ekimen antolatuta dira Zamudion, Markina-Xemeingo gidariari elkartasunari adierazteko, hala nola bertso saioa eta herri kirolen erakustaldia.

Epaia gizarte osorarentzat da positiboa, Petralandaren ustez



Auzitegi Nazionalak absolbitu egin ditu Segiko kideak zirelakoan epaitutako 40 gazte independentistak. Haritz Petralanda zamudioztarra da gazte horietako bat. Petralandaren iritziz, ona da epaia, bai gazteentzat, bai Euskal Herriko gizarte osoarentzat. "Epaia agerian utzi du lan politikoa egitea ez dela delitua, eta pentsa daiteke "dena da ETA" hori bukatzen ari dela. Epaian adierazten da gu gazte

independentistak garela, ez dugula zerikusirik Segirekin, eta gure lana ez dela biolentziari lotuta egon. Lana arlo sozialean egin dugula, gazteentzat interesa duten gaiak landuz".

Zamudioztarrak azaldutakoaren arabera, epaiak ez ditu kontuan hartzen inkomunikazio aldiko deklarazioak, eta zalantzan jartzen ditu Marlaska epailaren instrukzioa eta poliziaren lana. "Han ez da

argi esaten torturak jasan ditugula, baina bai baldintzatuta egon garela deklarazioa egiteko orduan, eta horrek eraman gaituela geure burua erruztatzen. Are gehiago, epaian jaso da Frantzia eta Italia atxilotu zituztenek beren buruari ez ziotela erririk egotzi". Gazteak uste du epaiak aurrekaria ezar dezakeela eta onuragarria izan daitekeela datozen epaiei begira. Horren haritik gogora ekarri du laster beste txorierritar bi epaituko dituztela, Endika Perez larrabetzuarra eta Aner Petralanda zamudioztarra, lehenengoa Segiko kidea delakoan eta bigarrena, beraren anaia, ezker abertzaleko mahai-kidea izateagatik "Dena dela, inoiz ez dakizu zer gerta daitekeen".

Gogoia

Haritzek urtebete eta hilabete bi eman zituen kartzelan. Behin-behineko espetxealdia bete zuen eta, denboratarte hori inoiz berreskuratu ez duela dakien arren, nahiago du alde positiboarekin gelditu. "Txarra izan zen familiarentzat, lagunentzat, niretzat... Baina gauza asko ikasi nituen; esate baterako, zein indartsu izan ahal naizen... Oso jende ona ere ezagutu dut".

Pozik dago, baina oraindik epaia asimilatzen. "Zeure bizitzarekin jarraitzen baduzu ere, badakizu epaia ailegatu dela, eta muga bat ipintzen diozu zeure buruari. Gainera, urte hauetan, alde batekin zein bestetik adierazitako jarrerak ikusita, okerrera pentsatzen duzu... Eta bat-batean dena duzu egiteko. Apur bat zortzekoa da". Lanean jarraitzeko gogoia duela esan digu, eta horretan ibiliko dela; gaur arte egin duen moduan. "Ez naiz ezertaz damutzen, oso harro nago".

Inprimatu zure posterra
airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin

Pilo bat daukazu aukeratzeko

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitez zure eskaera egiteko

9,32€

atik hasita
662 luera



ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburutegietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTODAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko balmena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

“Astiro bizi nahi dugu”

t: Gaizka Eguzkitza / a: Urtz taldea

Zelan sentitu zarete berriro martxan?

Momentuz aurreikuspen guztiak gairatzen gabiltza. Urtebete pasatu da taldea berriro martxan jarri genuenetik, eta tarte honetan bideoklipa grabatu dugu (aurreko etapan egin ez genuena), kontzertu piloa ematen gabiltza... Oso pozik gaude.

Zergatik erabaki zenuten uztea?

Bizitzan momentuak daude, eta garai hartan umeak izaten hasi ginen taldeki-deok. Normalean zaila da lana eta taldea uztartzea, eta are zailagoa da seme-alabak hezi behar badituzu. Momentu polita zen uzteko, taldea arrakastatsua zelako. Horregatik utzi genuen eta horregatik ere, hain zuzen, itzuli gara: umeak nagusiagoak dira eta askatasun gehiago ematen dute.

Zelan erabaki zenuten berriro martxan jartzea?

la nahi gabe itzuli gara. Victor hasierako baxu-jolea izan zen lehena taldea uzten, eta hala ere, musikari lotuta jarraitu zuen. Berak entseatzeko zuen lokalean lekua zegoela esan zigun eta hara joaten hasi ginen, musikarako grina asetzeko. Eta bat-batean jatorrizko Urtz taldeko lau kideak batu ginen eta hor piztu ziren ga-

JOSU ARIZTEGI | Urtz taldeko kidea

Urtz taldea itzuli egin da, eta jatorrizko kideek –Xabier Camarero, Asier Arozena, Víctor García Argüelles eta Josu Ariztegi– Astiro diskoa grabatu dute. Izenburuaz gainera, bizitz-filosofia da gipuzkoarrentzat. Txorieritarrok zuzenean entzuteko aukera izan genuen Zamudioko Pazko jaietan.

rai bateko oroitzapenak, denborak aurrera egin ez balu moduan. Handik gutxira Xabik esan zigun diskoa grabatzeko aukera zegoela, eta hementxe gaude.

Zer egin duzue azken 10 urteotan?

Lan egin, haurrak zaindu, bidaiatu... Gure adineko jendeak egiten duena (kar, kar...). Batzuek jarraitu egin dute jotzen eta kantak egiten etxean, eta horri esker diskoa hain denbora tarte txikian ateratzeko gauza izan gara. Nik bateria saldu nuen taldea desagertu zenean, etxean

“Lehen askoz arduragabeagoak ginen; orain, aldiz, une guztiak gozatzen ditugu”

“Aniztasuna da Urtz taldearen ezaugarri nagusia: ez dugu heavya egiten, ezta popa ere...”

gordetzeko handiegia zelako, eta iaz gitarra ikasten hasi nintzen. Baina orain bateriarekin nabil berriro.

Talde berbera da, baina aldi berean berria ere izango da, ezta?

Bai, berberak gara, baina hamar urte zaharragoak: esperientziak izan ditugu tarte honetan, bizitza beste ikuspuntu





batetik ikusten dugu... Denboraren eragina ikaragarri nabaritzen dugu kontzertuak bizitzeko eran: lehen saio piloa eskaintzen genituen eta askoz arduragabeagoak ginen; orain, aldiz, momentu guztiak gozatzeko ditugu.

Nolakoa da *Astiro* zuen azken diskoa?

Zerikusia dauka aurreko lanekin. Egia esan, beti egin zait oso zail geure estiloa katalogatzea. Taldea sortu genuenetik, zorionez ala zoritxarrez, aukera izan dugu guk geuk nahi genuena grabatzeko, eta tankera desberdinetako abestiak daude gure diskoetan. Disko honetan Kubako perkusionista baten laguntza izan dugu kanta batzuetan, eta berak hauxe esan zigun: "Esango balidate kantak talde ezberdinetakoak direla, sinetsi egingo nuke". Aniztasuna da Urtz taldearen ezaguerri nagusia: ez dugu heavya egiten, ezta popa ere... Denetarik egiten dugu eta horrek aberastasuna ematen digu. Disko berriak aurrekoek egin duten bideari jarraitu egin dio, baina, era berean, soinua eguneratu egin dugu eta hamar urte hauetan entzun dugun musikaren eragina du, noski.

Diskoak *Astiro* du izena. Zergatik *Astiro*?

Izena bizitza dastatzeko filosofiarekin dator bat. Gaur egun dena doa oso azkar:

Zazpi disko

Urtz taldea 1988an sortu zen. Pasaian entseatzen hasi ziren eta rock, pop eta heavy metalaren osagaiak hartu zituzten. Guztira, zazpi disko argitaratu dituzte: *Ekaitzaren garrasia* (1992), *Hautsa astinduz* (1994); *Hain urrun* (1996); *Lur gazian ametsak ereinez* (1998); *Aingeru* (2001); *Azken Eguna* (2003) eta *Astiro* (2013).

Internet, lan egiteko erritmoak, musika kontsumitzeko era... Ez ditugu momentuak dastatzeko. Guk *astiro* bizi nahi dugu, edo behintzat *astiro*ago.

Eta orain zer? Zer duzue buruan etorkizunari begira?

Auskalo! Guk taldea osatu genuen musika gustatzen zitzaigulako eta gustura genbiltzalako. Eta orain batu gara berriro, azken kontzertua eman genuenetik 10 urte pasatu diren aitzakia aprobetxatuz. Momentuz diskoa plazaratu dugu eta kontzertuak ematen gabilta. Momentuaz gozatzeko gabilta, epe luzerako planik egin gabe. Eta musikarako goseari eusten diogun bitartean, aurrera jarraituko dugu.

harategia - urdalategia
MIGUEL
ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA
Mikel Deuna, 7 * DERIO - 48160 * T: 454 52 94

Nire Autocasion
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA
GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

Jatetxea SAN ISIDRO
EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GOZOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala
Telefonoa 94 454 07 08 Fax 94 454 14 18 Mungialde etorbidea, 25 48160 DERIO

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK
Gutxi ikusiak, orokorrean
Asasien konsumitatek
Mantentzeko gutxi ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko amaierako garbiketak
Ikasleentzako
Zaberi ikasleak
Besaide Plaza, 1 - B* Aldeakone
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai iragun Facebooken

MAS MENOS
Janari-denda
Prezio paregabeak
Bustorrene, 3 DERIO
670 60 70 41

Emakume zintzoen arteko kirola

MAIALEN ETA AMAIA | errugbi jokalariaik

t: Itxaso Marina / a: I.T.

Errugbiagaz lehenengo hartu-emona institutuan euki eben, batxilergoko I. mailan egozala. Maialen Mungiako Errugbi Taldearen berbaldi batera joan zan eta han esandakoa interesgarria iruditu jakon. Saiatzera animau zan, nahiz eta amak disgustu txiki bat hartu eban. "Bera futbol jokalaria izan zan". Amaia gimnasia eskolan euki eban kirol honen barri eta itzel gustau jakon. "Banekian Maialen aurreko ikasturtean hasia zala errugbian eta bera-gaz egin neban berba. Alkarregaz hasi ginan entrenamentuetara joaten".

Maialen Cristobal Royo eta Amaia Tomas Gastañaga. Sondikoztar honeek biek 19 urte dabez, Uribealdean Errugby nesken taldearen jokalariaik dira eta mele jokatzen dabe 2. lerroan. Errugbizale amorratuak dira. Zergaitik? Arrazoi asko emon dabez. "Partida amaitu ostean, leher egin da zagozan arren, zure onena emon dozu la jakitearen sentsazioa oso atsegina da". "Balioak irakasten deusuz: konpromisoa, diziplina, adiskidetasuna, joko garbia, zure kideakazko zein arerioakazko eta arbitroagazko begirunea...". "Hobeto egiten joaten zara eta auto-

"Errugbiak balioak irakasten deusuz: konpromisoa, diziplina, adiskidetasuna, begirunea..."

estimua handitzen jatzu...". Bata bestearen atzetik ibili dira berbetan. Baina batez be jokalariaen artean dagoan laguntasuna azpimarratu dabe. "Oso giro ederra dogu jokalariaen artean, bai zelaian, bai zelaitik kanpo. Izan be, baten batez *feeling* txarra badozu, hori ez da onuragarria partidari begira". Eta zelaitik kanpo egiten dan 3. denporea be aitatu deuskue, jakina. "Etxean jokatzen dauanak beti pres-taten dau zerbait beste taldeko jokalariaikaz partekatzeko. Guk zer

jan eta zer edan ipinten dogu eta aukera bat da zelaian arerio izan dozuzanakaz barre batzuk egiteko. Asko estimaten dogu hori: zelaian alkarren aurka ibili gara, gure gogo eta indar osoz, baina partidaren ostean, alkarregaz gagoz, berba egiten, nasaitasun osoz...". Horregaitik hain zuzen be dinoe errugbia "gizon zintzoen" arteko kirola dala; "emakume zintzoen" artekoa, gure kasuan.

Lesinoak

Kirolaren alde txarragaitik galdetu deutsegu eta aho batez erantzun dabe: lesinoak. "Hareetako batzuk ezin diralako saihestu". Halan, zantiratuak ohikoak izaten dira, eta batzuetan arazo larriagoak egoten dira. "Bota basan trabatu jatan behin. Arerio batek lurrera bota ninduan eta ondorioa zantiratu bat eta Akiles tendoiko tendinitisa izan zan. Luzaroan egon naz entrenau barik", kontau deusku Maialenek. "Niri sorbalda dislokau jatan entrenamentu baten. Baina entrenamentuakaz jarraitu neban. Bera baka-rrik itzuli zan bere onera", esan dau Amaiak.

Kirol "apur bat basatia" emoten dauala komentau deutsegu eta baietz, kirol gogorra dala adierazo deuskue, baina entrenamentue-





tan plakaketak zelan egin eta zelan jaso ikasten dabela, lurrera jausten... eta azke-nean ez dala hainbesterako. "Indarra baino, teknikea da inportanteena. Teknika ona dauan jokalaria hobeto jokatzen dau eta gauza da berak baino indar handiagoa dabenak menderatzeko".

Uribealde taldea Hego Euskal Herriko ligan dabil eta aurtengo denporaldia azkenurrekoa amaitu dau. "Aurten Durangoko neskakaz batu gara, talde biek jokalarien beharra euki dogulako, eta oso gitxitan entrenau dogu alkarregaz. Halanda be, ondo joan da eta partida asko ondo jokatu doguz. Datorren denporal-

diari begira, hareekaz jarraitzeko asmoa dogu, ea alkarregaz entrenamentu gehiago egin ahal dogun, zure kidea ezagutzea oso inportantea dalako". Aurreko denporaldian, barriz, bigarrenak lotu ziran. "Ligan sei talde gagoz eta nahiko maila antzekoa dogu".

Bizia

Oro har, alde handia dago emakumezkoen eta gizonezkoen kirolen artean, bai ikuspegi ekonomikotik, bai ikuspegi mediatikotik. Maialenek eta Amaiak ez dabe nabaritu generoari lotutako diskriminaziorik beren klubean. "Dirua hiru zati

"Gure ahalegina alperrik da, jenteak telebistan futbola baino ez badau ikusten"

bardinetan banatzen da: bata, mutilentzat; beste bat, neskentzat; eta hirugarrena, eskolarako". Hedabideek mutilei "kasu apur bat gehiago" egiten badeutsee be, gakoa kirol motan dagoala aitatu deuskue. "Bizkain, esate baterako, futbola da kirol nagusia. Hernanin, orde, nesken taldea sortu eben orain dala hiru urte eta lehenengo mailan dagoz gaur egun. Ba, Hernaniko herritar guztiek badakie han errugbiko nesken taldea dagoala eta lagun asko joaten dira partidetara".

Gure nesken partidetan lagun gitxi batzen dira, tamalez. Eta merezi dau haren zelaieraino hurbiltzea, benetan joko bizia, kalidadezkoa eta interesgarria eskaintzen dabelako. Hedabideek errugbiaren alde gehiago egitea gustauko litxakie, "gure ahalegina alperrik da, jenteak telebistan futbola baino ez badau ikusten".

Datorren denporaldia urrian hasiko da, baina udan lagunarteko partidak eta Seven torneoak jokatuko dira. Maialen eta Amaia be zelaian egongo dira, daukien onena emoten eta kirolaz eta lagunez disfrutaten.

Amaia eta Maialen bata bestearen ondoan jokatzen dabe, eta, euren esanetan, oso ondo moldatzen dira alkarregaz. Neskak gehien sufritzen daben meleen postuan jokatzen dabe. "Amaia jokalaria ona da. Gauzak egin behar badira, egin egiten dauz: dana emoten dau. Laguntzarik behar badozu, ondoan dozu, eta hobetzen laguntzen deus". "Maialen be ondo dabil mele postuan, eta beti akatsak zuzendu eta hobetzeko prest azaltzen da".

Halanda be, asmo ezbardinak dabe euren kirol ibilpideari jagokonez. "Nik jarraitu gura dot jokalaria moduan hobetzen, eta Euskal Selekzinoan jo-

katzea lortu be bai", azaldu deusku Amaiak. Eta egia esateko, Euskal Selekzinoatik birritan deitu deusie hareekaz batera entreneteko. "Entrenamentuak zorrutzagoak dira eta garrantzia handia emoten jako teknikari. Nik 10-12 neska gaz entreneteko ohiturea dot, gehienez 20 neska gaz Durangokoakaz batzen garenean, baina Selekzinoan 40 neska inguru alkartzen gara. Eta hareetako batzuek eskarmentu handia dabe errugbian, Espainiako Selekzinoan dabilz... eta momentuoro dagoz zuri zuzentzen. Oso ezbardina da". Amaiak ikus-entzunezkoak

Bi jokalaria, bi adiskide

ikasiko ditu datorren ikasturtean eta kirola eta klaseak buztartzen ahaleginduko da. "Baita taldea desagertu ez daiten be".

Maialen Irakasle-eskolan hasiko da. "Nik badakit konpromiso bat dodala taldeagaz, eta entrenetara joaten naz eta ahalik eta ondoen egiten ahalegintzen naz. Baina errugbia zaletasuna da niretzat eta ez dot asmo handirik; nik ez dot Euskadiko Selekzinoan jolastea helburutzat. Dana dan, neu be ahaleginduko naz ahal dodan neurrian ikasketak eta kirola buztartzen".

Eskualdeko Enplegu Plana

Plana 2012ren amaieran egin zen eta prozesuan eskualdeko eragileek, enpresaburuen elkarteek eta 100 enpresak baino gehiagok hartu zuten parte. Eraitza hurrengo lau urteetan garatzeko plan bat izan zen. Aurten hiru lerro nagusi eramango dira aurrera.

1. Tokiko enplegua sustatzeko lana. Helburua lan merkatura sartzeko arazo bereziak dituzten eta lan merkatutik kanpo gelditzeko arriskuan dauden langabetuak aldi baterako kontratatzea erraztea da. Hala, beren prestakuntza, lan gaitasunak eta motibazioa indartzen dituen aldi baterako esperientzia baten bidez, lagun horien enplegarritasuna hobetu nahi da.

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak egindako kontratazioak: 19.

2. Ekintzailtza eta autoenplegu proiektuak. Enpresak sortzeko aholkularitza eta laguntza. Helburua enpresa ekimenei babesa eman eta haien sorrera bultzatzea da. Ekimenak autoenpleguari egon daitezke lotuta: autonomoak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak...; edo beste edozein forma juridikori: kooperatibak, lan sozietateak, sozietate mugatuak... Horretarako, tokiko garapena ar-



daztat duen ikuspegi bat erabiliko da, eta Eskualdeko Enplegu Planean zehaztu diren enplegu-sorgune berriak eta estrategikoki interesgarriak diren sektoreak hartuko dira kontuan. Helburua: 10 enpresa berri.

3. Kontratazioa sustatzeko lagun-tza-proiektuak. Helburua tokiko enpresei laguntza ekonomikoa ematea da, langabezia dauden lagunak kontrata ditzaten. Guztira 14 laguntza emango dira eta

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako edozein enpresak eskura dezake haietariko bat. Enpresek goi mailako prestakuntza duten lagunak kontratu beharko dituzte, krisiaren eraginez edo beren adina dela-eta, lan merkatutik kanpo gelditu direnak. Kasu honetan ere, lagun hauen enplegarritasuna hobetu nahi da beren prestakuntza eta lan gaitasunak indartzen dituen aldi baterako esperientzia baten bidez.



Txorierriko I. Musika Lehiaketa

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko Gazteria arloak Txorierriko I. Musika Lehiaketa ipini du martxan. Lehiaketa Txorierriko erroldatuta dagoen eta 15 urtetik 29 urtera bitartekoa den kideren bat duten musika taldeei dago zuzenduta. Finalistek grabazio-estudio profesional batean CD bat grabatzeko aukera edukiko dute. CDaren aleak ere emango zaizkie, beren lana zabal dezaten, eta 300 euro jasoko dute, Txorierriko saltokietan gasta dezaten. Gainera, aipamen berezi bi egingo dira: bata, kide gehienak neskak diren talderik onenari; eta bestea, kide gehienak 15 urtetik 21 urtera bitartekoak diren talderik onenari. Talde biek 100 euro jaso-

ko dute, bertoko saltokietan gastatzeko, eta CDaren beren abestietariko bat sartuko da.

Bestalde, kontzertu bat egingo da eta bertan CDa aurkeztuko da jendaurrean. Kontzertura nahi duen guztia joan ahalko da.

Lehiaketaren oinarriak eta izena emateko orria Mankomunitateko webgunean daude: www.e-txorierri.com. Informazio gehiagorako, 688 62 99 65 telefono zenbakira deitu ahal da (Txorierriko Gazte Informazio Bulegoa).

Txorierriko gazte bat bazara eta musika talde bat baduzu... hau da zure lehiaketa!



Mankomunitateak Urrezko Erratza saria lortu du hondakinen kudeaketa eta bideen garbiketa arloetan egindako lanagatik. Saria Ategrus elkarteak eman dio. Hori hondakinak kudeatzeko eta ingurumeneko elkarrekin teknika da, eta Hondakin Solidoen Nazioarteko Elkarteko kidea ere bada. Orain dela urte batzuk, Mankomunitateak Zilarrezko Saria jaso zuen eta orduan adierazi zuen bide honetan lanean jarraitzeko asmoa. Horrela izan da eta saritzat Urrezko Erratza jaso du.

Saria Lander Aiarza Zallo Mankomunitateko presidente eta Derioko alkateak hartu zuen ekainaren 12an, Madril. Ekitaldian Alaitz Etxeandia Lezamako alkatea, Igotz López Zamudioko alkatea, Bizente Arteagoitia Loiuko alkatea eta Gorka Carro Sondikako alkatea ere izan ziren. Besteak beste, jardunbide hauek eraman ditu aurrera Mankomunitateak azken urteotan:

1. Autokonpostajea indartzea. Hura 2007ko amaieran eta 2008ko hasieran ezarri genuen, eta ia indartu genuen oso

Urrezko Erratza saria

arrakastatsua izan zen kanpaina baten bidez. Kanpaina horrek sobera gainditu zuen aurreikusitakoa eta aurreko beste bat ipini da martxan.

Ekimenari esker, ortua edo lorategia duten familia askok lortu dute sortzen duten hondakin-kopuru handia murriztea. Era berean, hondakin organikoak birziklatu dituzte beren etxean, eta ortuan edo lorategian botatzeko konpost bihurtu dituzte.

2. 2012n bosgarren edukiontzia edo edukiontzi marroia ipini zen Mankomunitateko sei udalerrietan, hondakin organikoak selektiboki biltzeko. Herritar guztiei dago zuzenduta, pisu baten zein ortua edo lorategia duen etxebizitza baten bizi direnei. Hondakinak Artigasako tratamendu-instalaziora eramaten dira, bertan konpost bihurtzeko. 2013an eta 2014an, ildo honetan jarraitu dugu lanean

eta esperientzia pilotu bat egin da Zamuñon. Herritarrei erabilera anitzeko txartel adimendu bana eman zaie, bosgarren edukiontzia automatikoki ireki ahal izateko, eta datuak zein bertan utzitako hondakinen kopurua erregistratzeko.

3. Enpresetarako extraneta diseinatzea. Tokiko administrazioaren eta enpresen arteko harremana estutzeko tresna da. Enpresek kode bat eta sartzeko pasahitz bat dute, hondakinen kudeaketari buruzko informazio guztia eskuratzeko. Horri esker, enpresa bakoitzak dituen edukiontziei eta batutako hondakinei buruzko jarraipena egin dezake, eta beste hondakin bilketa batzuk eskatu.

Urrezko Erratza saria eragingarri bat izan da zerbitzuak hobetzen jarraitzeko, eta etorkizunari begira sari nagusia eskuratzeko: Platinozko Erratza.



Txorierritarrok 100. kilometroan



t: Gaizka Peñafiel / a: G. P., Aner Mentxaka, Jon Jauregi

Goizean goiz irten ginen Txorierritik. Goizeko 8etan bailarako azken erroton-dan geratu, eta 22 autobus abiatu ziren ilaran 100. kilometrorantz, Uharte Arakile-rantz. Ordu eta erdi pasatxoko bidaia guz-tiz atsegina izan zen, eta Gure esku dago abestia kantatu genuen behin baino gehiagotan: "Har dezagun bidea, gure esku dago eta, milaka lagun oinez, eskutik ora-tuta...". Sareetan ere hasi zen giroa bero-tzen, eta orduan jakin genuen Larrabe-tzuko argazki bat argitaratu zutela *Be-rrriako* lehen orrialdean. A ze motibazioa!

Geure kilometrora heldu ginen, eta urduritasun apur bat nabari zen; motxilak eta traste guztiak hartu, eta han hasi ginen 100. kilometroan zehar sakabana-





tzen. Aurreko egunotan joandako asko bertan zeuden ordurako, eta elkartzere berezia egin genuen, aspaldian elkar ikusi ez bagenu bezala; aurretik genuen egun handiaren seinale, beharbada. Oinez abiatu, eta kilometroa hasten zen lekura heldu ginen. Boluntarioak zeuden bertan, baita *Berriak* argitaratutako ale berezia ere, itxaronaldia atseginago egiteko. Basea ipini, eta hastapeneko puntura itzuli ginen, giro itzela baitzegoen gasolindegia inguruan. Taberna lbiltariakoak kantuan zebiltzan, poztasun izugarria zabalitzen. Familia asko ere bazeuden han, umeekin.

Egia esan, uste baino gazte gehiago etorri zen; izan ere, askotan komentatzen dugu oraingo gazteak ez direla lehengoak bezain konprometituak, baina oraingo honetan ederto erantzun zuten, eta herri guztietako koadrilak joan ziren Uharte Arakilerara, aldarrikapenari energia amagabea kutsatuz. Baina goiz osoan zehar jendartean ibili ondoren, nagusien begietan ikusten zena nabarmenduko nuke bereziki, nola azaltzen zen ilusio berritua haien aurpegietan. Gu, oster, zorionez, beste garai batean jaio ginelako eta ez dugulako asko itxaron behar izan halako egun bat bizitzeko. Baina han zeuden nagusi askok, bizi izan dutenaren ostean, merezi zuten aukera hau lehenengo pertsonan bizi izatea.

Lagun esanguratsuak ere izan genituen geure kilometroan: Aitor Elizegi sukaldaria, Athleticeko emakumezkoen taldeko jokalaria ohiak, Gotzon Baran-

**Hemen prestakuntzak
lana dakar berarekin**

POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Centro de Investigación y Seguros Industriales

Unizaga Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48100 - DEIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

ATEAK ZABALTZEKO EGUNAK
Maiatzaren 6an eta 27an (18:30etatik aurrera)

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOAK

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknika
- Enfi mailako zikloa (2 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- Produzioaren Programazio goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen-Heziketa eta Kontrol goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- Telekomunikazio- eta Informatika-Sistemako goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten kudeaketako eta Merkataritza Arloetako goi-mailako teknika
- Goi-mailako zikloa (2 ordu)



diaran, Juan Luis Goikoetxea, Etxahun Lekue, Iñigito Txapelpunk taldeko abeslaria, Juan Ramon Madariaga idazlea eta mendizalea, hainbat alderdi politikoren ordezkariak... Baina izen-abizen ezagunez gain, garrantzitsuen: 1.500 txorierritar. Hilabete askoren lanaren ondorioz, bailarako jende ugari mugitu eta animatu zen egun historiko honekin bat egitera. Batzen gaituena oinarritzat hartuz eta ezberdintasunak alde batera utziz. Malkoren bat ere isuri zen, egunero ez baita Euskal Herriaren mugarri bat eraikitzen.

Giza katearen momentua oso hunkigarria izan zen. Olatua egiten hasi zen jendea, irrintziak botatzen, dantzan, kantuan... Helikopteroa hurbiltzen zenean ere, zoramena! Bost minutu izan balira moduan pasatu ziren hogeita hamar minutuak.

Giza katea egin ostean, Etxarrira joan ginen guztiak. Txiki gelditu zen herria. Bertan inguruko kilometroetako lagun asko batu ziren arren, alde batera eta bestera begiratzean, beti egiten genuen topo Txorierriko baten batekin. Alaitasuna lagun eta telefono-estaldurarik gabe, egun ederra izan zen geure arteko harremanak sakontzeko eta etorkizunari begira lehenengo asmoak adosteko. Hau ez delako bukaera, hasiera baizik.



Leher eginda, etxerako bidea hartu genuen 18:00etan, izerdiz lortu genuenaz eta, batez ere, gure eskualdeko jendearen jarreraz harro. Zabaldutako begiak,

ohartu gara, eta behingoz geure esku dagoela sinesten dugu. Herri honek bere etorkizuna erabaki nahi duela, libre eta bakean.

ZB
ESTETIKA-ZENTROA

Anguleri, 2 - LARRABETZU
94 455 81 44

www.centroesteticozb.com

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zainduzu Berruak
Logopedia
Podologia
Kiroprasajak

**clínica dental
ZAINDUZ**
hortz klinika

Txorierritar bidean, 9 - Lortza | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 607 79 54 46
info@dentatzainduz.com | www.dentatzainduz.com



 **HAUR-MODA**
Tximeleta
Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA
Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun
eta futbolinean jokatu, etorri zaitzez Trippya, Deriora
Beheko Kalea Bejo
DERIO

 **EGUNEKO MENUA**
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria
9€
Bestorene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Egun biziak Pantxikorenak



a: Loiuko Udala

Aurreko urteetan bezala, ume, gazte zein nagusientzako ekitaldi sorta zabala ekarriko digute aurtengo jaiek: gastronomia txapelketak, kirola, musika, magia... Gainera, zapatu gauean autobus bat ipiniko da doan, gainerako herrietakoak kontzertuetara hurbil daitezen eta autorik hartu ez dezaten.

San Pedro eta Santa Luzia jaiei ekainaren 27an, barikuan, emango diote hasiera Loiun. Baina aurreko egunetan ere jai giroa egon da herrian, San Joan gaua ospatu eta Kirol Eguna egin dutelako. Loiuko Bakarrak gazte elkarteak gazteen-zako herri bazkaria antolatu du barikurako, eta herri kirolak, haur zein helduentzat. Txoribikers motorzaleen elkarteak Pantxiko jaietako maskota gidatuko du bere jai-tsieran, eta Gaztegunekoek irakurriko dute pregoia. Tortilla Txapelketa egingo da eta sei sari banatuko dira: 120 euro, irabazlearentzat; 80 euro, bigarrenarentzat; 60 euro, hirugarrenarentzat; 40 euro, bosgarrenarentzat; eta 20 euro, seigarrenarentzat. Gaua Salitre taldeak eta Dj batek girotuko dute.

Zapatuan, Paella Txapelketa izango da. Era berean, puzgarriak egongo dira goiz osoan zehar, eta haurrentzako ekimenak egingo dira goizean zein arrastian. Raul

Gutierrez Europako Trial Bike-ko txapeldunak erakustaldia eskainiko du eta musika Egan taldearen, esne Beltza taldearen eta Oihan Vega Djaren eskutik izango da. Autobusa ipiniko da doan Txorieritrik Loiura hurbiltzeko (21:00, 22:00 eta 23:00), eta etxera itzultzeko (03:00, 04:00 eta 05:00).

Kirola ekintza nagusia izango da domekan. Hala, egun horretarako antolatu dira Soka tira Txapelketa, pilota partidak, pala partidak eta aizkolarien erakustaldia. Herri bazkaria ere egingo da eta bakoitzak bere jatekoa eroan beharko du. Magiarako lekua ere egongo da eta Simon Otxandategi dantza taldeak saioa eskainiko du plazan.

Astelehena ere ekitaldiz beteta etorriko zaigu. Kalejira, pailazoak, kontzertu bat eta nagusientzako bazkaria, goizean; eta idi-probak, sardina jana eta erromeria, arrastian. Pantxikori agur esango diote gauean. Eta hurrengo urtera arte.

Ekainak 27, barikua

- 15:30: Gazteentzako herri bazkaria, Herriko Plazan. Loiuko Bakarrak elkarteak antolatua.
- 17:30: Haur eta helduentzako herri kirolak, Loiuko Bakarrak elkarteak antolatua.
- 19:00: Pantxikoren jai-tsiera, Txoribikers taldearen eskutik.
- 19:30: Pregoa irakurtzea, Gazteguneren eskutik.
- 19:45: Kartel Lehiaketako sariak banatzea.
- 20:00: Dantzak, Goialde dantza taldearen eskutik.
- 21:00: Tortillak aurkeztea, Udaletxeko eskaileretan.
- 21:45: Tortilla Txapelketako sariak banatzea.
- 22:00: Gau dantza, Salitre taldearekin.
- 23:00: Pijama gaua, Loiuko Bakarrak elkarteak antolatua.
- 00:00: Dj bat.
- 01:00: Salitre taldeak.
- 03:00: Dj bat.

Ekainak 28, zapatua

- 10:00: X. Paella Txapelketa.
- 11:00: Haurren Pintura Lehiaketa, kirol pistana.
- 12:00: Haurrentzako herri jolasak eta Moltos Motorren V. Txapelketa, kirol pistana.
- 13:00: Raul Gutierrez Europako Trial Bike-ko txapeldunaren erakustaldia, paellen zelaian.
- 14:00: Paellak aurkeztea.
- 16:30: Apar jaia.
- 17:30: Mus Txapelketa.
- 18:00: Paella Txapelketaren sariak banatzea.
- 18:30: Raul Gutierrez Europako Trial Bike-ko txapeldunaren erakustaldia, paellen zelaian.

elekma
URRATZEN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIK
TELEBISIATU ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TORAK

leherengo markak • Prezioak onak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txarri etorbidea, 25.3.H. • 48180 Iruia
T: 944 529 232
www.elekma.es

Altzari
EBANISTERIA - CARPINTERIA, S.L.

Zureko lanetan espezialistak

Alain Pomposo Zarate
946 740 141
663 209 209

www.altzari.com
altzari@altzari.com

Luisena, 2 - Belako Elkartegia, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA

Jai-egitaraua

–19:30: Erromeria Egan taldearekin, paelen zelaian.

–22:30: Erromeria Egan taldearekin, Herriko Plazan.

–01:00: Kontzertua: Esne Beltza. Ondoren, Oihan Vega.

Ekainak 29, domeka

–11:00: Kalejira.

–11:30: Soka-tira Euskadiko Txapelketa, paellen zelaian.

–12:00: Meza.

–13:00: Pilota partidak.

–15:00: Herri bazkaria.

–17:00: Padel Txapelketako finala.

–18:00: Pala Txapelketako 3. eta 4. postuak, Irtzan taldeak antolatua.

–18:30: Oliver magoa, Herriko Plazan.

–19:00: Pala Txapelketako finala, Irtzan taldeak antolatua.



–19:30: 5-14 urte bitartekoei argazkia ateratzea, Udaletxeko eskaileretan.

Loiu Laztana elkartearen eskutik.

–20:00: Aizkolarien erakustaldia, Herriko Plazan.

–21:00: Simon Otxandategi dantza taldea, Herriko Plazan.

Ekainak 30, astelehena

–10:30: Kalejira.

–11:00: Kiki eta Koko pailazoak.

–12:00: Meza eta kontzertua, Pello Guallaren eskutik.

–13:00: Aurrekua.

–14:30: Nagusientzako bazkaria, frontoian. Ondoren, Los 5 Bilbainos eta IV. Dantza Txapelketa.

–18:00: Idi-probak, Larrakoetxe kirol taldeak antolatua.

–19:30: Loiu buruzko filma, liburutegian. Loiu laztana elkartearen eskutik.

–20:30: Sardina jana eta erromeria, Lotxo taldearekin.

–22:30: Pantxikori agur esatea.



Santurik santu

Uztailaren 25etik abuztuaren 3ra arte jaietan izango dira Aldekona Derioko auzoan. Santiago, Santana, San Inazio eta San Esteban ospatuko dituzte bertan eta egitarau zabala edukiko dute horretarako. Paella, tortilla eta sukalki txapelketak, herri kirolak, kalejirak, mozorroak, idi-probak, dantzak, berbenak, mus txapelketak, kopauak, puzgarriak... Gainera, Portugaleteko folklore jaialdian parte hartzen duten taldeetarikoa bat ere Derioko auzora hurbilduko da, bere herriko folklorearen eta kulturaren zati bat hara eramateko.



Jai-egitaraua

Uztailak 25, barikua. Santiago

- 11:00: Kalejira.
- 12:00: Meza.
- 13:00: Dantzen agerraldia, Lainomendi taldearen eskutik.
- 14:30: Paella Txapelketaren aurkezpena.
- 16:30: Mus "arin-arina".
- 17:30: Paella Txapelketaren sariak banatzea.
- 18:30: Herri kirolak. Umeentzako tailerra.
- 19:30: Tortillen aurkezpena.

- 20:30: Tortilla Txapelketaren sariak banatzea.

- 21:00: Berbena, Raspu taldearekin.

Uztailak 26, zapatua. Santana

- 11:00: Kalejira.
- 12:00: Meza.
- 13:00: Sukalkia dastatzea, txosnan.

Uztailak 30, eguaztena

- 17:00-20:00: Puzgarriak eta "fashion tailerra".
- 20:30: Umeen Mozorro Txapelketaren izena ematea.
- 21:00: Umeen Mozorro Txapelketa.

- 22:30: Umeen Mozorro Txapelketaren sariak banatzea.

- 23:00: Berbena, Fan&Go taldearekin.

Uztailak 31, eguena. San Inazio

- 11:00: Kalejira.
- 12:30: Meza eta nagusientzako kopaua.
- 13:15: Nazioarteko folklorea.
- 19:00: Idi probak.

Abuztuak 3, igandea. San Esteban

- 12:30: Meza.
- 13:00: Kopaua.
- 14:30: Sukalki Txapelketa.
- 16:30: Mus "arin-arina".
- 20:00: Sariak banatzea.
- 20:30: Txitxi-burruntzia.



ZIRIKADA JATETXEA

www.zirikadaderio.com

94 454 50 45

Gaztelumendi Plaza, 1
48160 Derio



Liliak
Loradenda

*Apaingarri bereziak Gabonetarako
Lore-konposizioak*

Erdiko kalea, 2
48160-DERIO
94 454 12 23
Facebook: liliak loradenda

ESTANKOA Ana Artiñano Inchausti

Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio

Tel/Fax: 94 454 15 41

anaarti@euskalnet.net



Saritzeko moduko txakolingileak



a: Judith de Prado

Zorioneko dago Magalarte Lezamako txakolina; izan be, Iñaki Aretxabaletaren upeltegiak sari bi eskuratu ditu aurtan. Alde batetik, bere txakolin zuriak urrezko domina jaso dau Bruselan; eta bestetik, barrikan hartzitutako txakolin zuriak, zidarrezko Bacchus saria. Horrezaz gainera, "Txakoli de Bizkaia-Bizkaiko Txakolina" Jatorrizko Deituraren Kontseju Arautzai-leak Magalarte Lezamako txakolina aukeratu dau jatorri-deituraren ordezkari izateko.

"Bada, zer esatea gura dozue? Oso pozik gagozala". Plurala erabili dau Iñakik, azaldu deuskun moduan, ospea bere izenak daraman arren, saria familia osoak egingdako ahaleginaren emaitzea dalako. "Pilik, emazteak, asko laguntzen deust: txakolina botilaratzen, azoketan... Alaba Amaia be azoketan dabil gure produktua zabaltzen, eta Andoni semeak batez be ortuko gauzakaz laguntzen deust. Enologia ikasten dabil eta upeltegiagaz jarraitzeko asmoa azaldu deusku. Txakolingileen lau belaunaldi gara, eta emoten dau gitxienez beste bat egongo dala".

Lortutako sariak aurrera jarraitzeko eragingarri bat izan dirala aitatu deusku lezamarra. "Kalidadea egon dala adierazoz gura dabe, gauzak ondo egiten gabil-

zala. Eta, jakina, zure beharra aintzat hartzen danean, horrek bultzadea emoten deustu ilusinoagaz behar egiteko eta hobetzen jarraitzeko".

Bere produktua definiduteko eskatu deutsagu, eta apaltasunez erantzun deusku, bere ustez, maila polita daukala, eta kalidade-prezio erlazinoa be egokia dala. "Baina ez bakarrik gure produktua. Beste upeltegi batzuk be sariak atera dabez nazinoarteko txapelketetan, eta horrek adierazoz gura dau txakolina munduko beste ardaoak dagozan maila berean dagoala. Kategoría handiko produktua dogu eta halan balorau behar dogu".

Itxura ona

Kategoria horretaz jabetu dira kanpogan be bai, eta txakolinaren esportazioa handitu da azken urteotan. Batez be Estatu Batuetatik eskatzen da. "Gure txakolina esportetako esan deuskue, baina momentuz ez dogu horretarako nahikoa kantidaderik. Gehiago ekoiztu beharko genduke. Dana dala, merkadua ezagutu eta sendotu behar dala uste dot, eta, neure eretxiz, merkadurik inportanteena etxean bertan daukagu".

Aurtan 25.000 litro txakolin ekoiztu da Magalarte Lezamako upeltegian; litro gitxiago, aurreko urteetan ekoiztutakoaren aldean. "Joan dan urteko udabarria

"Txakolina kategoría handiko produktua da eta halan balorau behar dogu"

"Neure eretxiz, merkadurik inportanteena etxean bertan daukagu"

nahiko txarra izan zen, baina abuztua eta iraila oso onak izan ziran eta mahatsa bere puntuan heldu zan. Kantidade gitxiago euki dogu, baina kalidade handiko txakolina ekoiztu da. Mahatsa ondo bartzen bada, gero zaindu baino ez da egin behar, kontuz ibili... eta gauzak ilusino handiagaz egin".

Goiz da aurtan zelango uztea batuko dan esateko, "baina landarak loratan dagoz eta oso itxura ona dabe". Baserritarrak eguraldiaren menpe bizi behar, eta datozen hilebeteak giltzarriak izango dira uztetari begira.

“Zergatik ez jarraitu amets egiten?”

t: Gaizka Eguzkitza / a: ...eta kitto! aldizkaria

Zorionak, Gaizka. Zer ekarriko die igoerak klubari eta herriari?

Eskerrik asko. Igoera historikoa da Eibar taldeak Lehenengo Mailan lehen-dabiziko aldiz jokatu duen duelako. Igoerak oihartzun handia izango du, eta ondorioz, jendeak jakingo du non dagoen Eibar, bai Estatuan, bai Europan.

Horrelakorik espero zenuen denboraldi hasieran?

Ez dakit. Oso ondo hasi ginen eta jendeak esaten zuen ez geniola erritmoari eutsiko, baina ez zen horrelakorik gertatu. Jokalariek oso lan txukuna egin dute bukaerara arte eta azkenean igoera ez ezik, Liga ere lortu dugu.

Zeintzuk izan dira gakoak?

Defentsa izan da batez ere gure indarra, baina erasoan ere fin ibili gara, aukera asko sortu ditugulako eta gol asko sartu ditugulako. Nahiko talde orekatua eta lehiakorra izan gara.

Aurtengo taldea eta iazkoa, Bigarren B Mailan ibili zena, antzekoa izan da. Zelan da hori posible?

Konfiantza handia nuen eurengan, eta aurtengo jarraipena eman diogu talde polit horri, eta jokalariek berri gutxi fitxatu ditugu. Jokalariek agerian utzi dute gazteak direla, baina etorkizun handia dutela.

Iaz Bigarren B Mailatik Bigarren Mailara; eta aurtengo Bigarren Mailatik, Lehenengo Mailara. Zein igoera izan da zailena: iazkoa ala aurtengoa?

Biak izan dira oso zailak. Bigarren B Mailan 80 talde daude Estatuan eta bakarrik lauk lortzen dute igoera. Iaz, Bigarren B Mailan geundenean, aurrekontua jaitsi arren, igotzea lortu genuen. Eta aurtengo Liga amaitzeko aste bi falta zirenean lortu

GAIZKA GARITANO | Eibar futbol taldeko entrenatzailea

Bai, amets egiten jarraitu nahi dute Eibar futbol taldeak eta bere entrenatzaileak, Gaizka Garitano derioztarrak. Izan ere, aurtengo Lehenengo Mailara igotzea lortu dute, nahiz eta kategoriako aurrekonturik txikiena izan. Zorionez, futboleko mirariak gertatzen dira batzuetan, eta Gaizka horren protagonistetako bat dugu.



“Defentsa izan da batez ere gure indarra, baina erasoan ere fin ibili gara. Talde orekatua izan gara”



dugu helburua. Bitxia da: iaz Noja eta Peña Sport taldeen kontra jokatu genuen eta datorren urtean, Bartzelona edo Real Madrilen kontra. Aldaketa izugarria.

Igoeraz aparte, beste sari bat ere lortu duzue, Bigarren Mailako txapela. Txalotzekoa, benetan!

Oso garrantzia handia ematen diot txapelari, lehenengoa izatea zerbait historikoa baita. Pentsa ezazu Zaragoza, Mallorca, Las Palmas edo Coruñaiko Deportivoren kontra ibili garela lehian. Gure aldean oso talde handiak izan arren, geu izan gara lehenengoak. Gainera, titulua da eta hori polita da.

Eibarren betiko ezaugarriak hauek dira: pase luzea, atzean sendo... Aurreten, aldiz, beste era batean jokatzeko gauza izan zarete. Nolako garrantzia ematen diozu horri?

Niri irabaztea gustatzen zait, eta horretarako lehiakorra izan behar duzu. Irabazteko, bide ezberdinak daude, eta hori ere bada garrantzitsua. Guk agerian utzi dugu defentsan gogorrak izan garela, baina erasoan ere bai.

Eta datorren urtean, zer?

Datorren urtean talde lehiakor bat osatzen saiatuko gara, nahiz eta baliabide ekonomikorik ez izan. Bigarren Mailan aurrekonturik txikiena geurea izan da aurreten; imajinatu Lehenengo Mailan... Urtea disfrutatu behar dugu, baina lehian sartuz: ez dugu urtea pasatu behar eta gero zulora joan, ez. Saiatu behar gara talde on bat osatzen eta hiru talde gure atzetik uzten, mailari eusteko. Ni, betiko moduan, baikorra naiz; badakit zaila izango dela, baina orain arte ere lortu ditugu

“Niri irabaztea gustatzen zait, eta horretarako lehiakorra izan behar duzu”

gauza zailak, beraz, zergatik ez dugu amets egiten jarraituko?

Kirol-batzorde Nazionalak kapital-gehikuntza egitera behartu du Eibar taldea, Lehenengo Mailan jokatu ahal izateko. Zelan daramazue?

Arduratuta gaude. Dirua lortzen ez badugu, Bigarren B Mailara goaz, eta hori azken 50 urteotan futbolearen egiten den injustiziarik handiena izango litzateke. Eibar taldeak ez du zorrik eta egunean ordaintzen du. Ez dakit zenbat taldek esan ahal duten hori. Agian bakar batek ere ez. Baina egin behar dugu eta egingo dugu. Baikorra naiz.



Gaizkak arantza kendu du

Eibar taldearen eta Garitanoren ibilbideek bat egin dute behin baino gehiagotan. Derioztarrak lau urte eman zituen jokalaria talde gipuzkoarrean. Garai hartan, 2005. urtean, Gaizka kapitaina zen Lehenengo Mailara igozteko zorian egon zirenean. 2009. urtean Eibarren bertan hasi zen entrenatzen eta sei urte pasatu eta gero, Gaizkak arantza kentzeko aukera izan du, eta inoiz lortu duen garaipenik nagusia eskaini dio klubari.

Garitanok eskarmentu gutxi du aukian, baina ibilbide paregabea du, azken bi urteotan igoera kontsekutibo bi lortu baititu. Hala ere, egunetik egunera bizi da. “Ez dut epe luzera pentsa-

tzen. Bakarrik momentua disfrutatzea. Ez diot neure buruari mugarik edo helbururik jartzen. Entrenatzaile naizenetik, gauzak urtero ateratzen zaizkit ondo. Suerte handia eduki dut”.

Gaizka lasaia eta zentzuduna da, eta ziurrenik etxean irakatsi diote futbola egun batetik bestera aldatzen dela. Izan ere, osaba, Ander, Athleticen jokalaria ohia da; eta aitak, Angelek, Ondarruk, hainbat urte eman ditu entrenatzaile Maneren alboan. “Askotan hitz egiten dugu futbolaz. Nik baino eskarmentu handiagoa dute eta euren gomendioak entzuten ditut”. Eta ez duzu inoiz eurekin entrenatu nahi izango? “Ez, bakoitza bere bidetik (kar, kar)”.

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Garmendia
ardoak

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel/Faxa: 94 452 00 49

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubieta

Osasun-zentroa & Hortz-esteka
HORTZ-PLANTEAK - ORTODONTZIA ESTETIKOA
HUTURAK DUTEN HILDURAK

Dr. Arcelus kalea, 11 - 1. esk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urte plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

t: Itxaso Marina / a: Lainomendi

Txaro Martin Lainomendi dantza-taldearen zuzendaria da; eta Atotz Goikoetxea taldearen dantzaria izateaz gainera, liburuaren egileetarikoa bat be bada. Beragaz batera, Alaitz Zabalak eta Esther Aurrekoetxeak formea emon deustsie beharrari. Irudiak eta azalearen diseinua Oihane Goienetxerenak dira.

Azaldu deuskuen moduan, liburua egiteko idea taldean bertan sortu zan. "Dantza munduan hainbeste urte ibili os-tean, eta gutariko batzuk beste talde batzuetan egonak ginala kontuan hartuta, jakin-mina biztu jakun eta gehiago ezagutu gura izan genduan aurreko dantza-talde eta dantzarien gainean. Izan be, atzetik baegoan historia bizi bat guk eza-gutzen ez genduan eta galtzen joiana".

Beharra egiteko, gerra aurreko urteetara egin dabe atzera eta guztira 23 lagunengana jo dabe informazino bila. Liburua zati bitan antolatu dabe: alde batetik, gerra aurreko taldeak eta dantzariak, eta bestetik, gerra ostekoak. "Taldeak batzokiaren inguruan sortu ziran gerra aurretik, eta Elaiezeari lotutako taldeen inguruan, esaterako Acción Católica eta Hijas de Maria, gerra ostean. Beranduago, abadeengan euskal gaien inguruko sentsibiltate handiagoa hasi da azaleratzen".

Derion izen ofiziala euki daben bost dantza-talde egon dira: Gaztedi, Arin-arin, Sorkalde, Zutik eta Lainomendi. Baina horreek baino lehenago beste dantza-talde batzuk be egon ziran, eta Seminarioan be

Derio dantzan dabil

Lainomendi Derio dantza-taldeak *Derion dantzan* liburua emon dau argitara. Dantzak herrian gerra aurreko urteetatik gaur egun arte euki dauan bilakaerea jaso dabe liburuan.



dantza-talde bat osatu zan. Talde baten sorreratik beste taldeen sorrerara arte urteak pasau arren, euren arteko bardingtasunak ezbardintasunak baino handiagoak dira. "Diferentzia handiena da lehen dantzariak modu natural baten alkartzen ziralara. Erromerietara-eta joateko ohiturea egoan eta lagun koadrilek esaten eben "zer, batuko gara dantza egiteko". Ekianari kopiaren eutsien eta halan ikasten eben

dantzan. Gero, irakaslearen figura sortu zan". Edadeko informatzaileek beste bat azpimarratu dabe: "Lehen, dantzea ilusino eta gogo handiagok egiten zala dinoe".

Lainomendiko partaideen esanetan, beharrean gizarteak berak euki dauen bilakaerea be azaltzen da. "Esate baterako, lehen zaldi-gurdiz joaten ziran erromerietara edo komuniketako beste erarik ez egoanez, urte batetik bestera lotzen ziran,





adibidez, jota txapelketa baten parte hartzeko. Gainera, aukera gitxi egoan denpora libreza paseteko eta dantzeak hutsune hori beteten eban. Kutsu soziala eban eta herri izaerea be adierazoten eban”.

Amaitu barik

Datorren urtean 25 urte beteko dira Lainomendi dantza-taldea sortu zanetik. Talde honetan baino lehen, umetan, Txaro Zutik taldean be aritu zan dantzari. “Goikoetxea neba-arrebak, eta gero Madariaga ahiztak, ibili ziran irakasle. Dantzaz gainera, urteerak egiten genduzan mendira, euskal kankak, kanpora joaten ginan dantzatzera... Uste dot taldea 70ko hamarkadan-edo desagertu zala”.

Lainomendi sortu zanean, euskeraz aritzeko aukera gitxi egoan herrian eta dantza euskeraz egin behar zan baldintza ipini eben sortzaileek. Dantzaz gainera, hasierako urteetan beste ekintza batzuk be antolatu ziran taldearen inguruan, adi-



“Baegoan historia bizi bat guk ezagutzen ez genduana eta galtzen joiana”

bidez tailerrak, txistu eskolea eta eskupe-lotea. Denporearen poderioz euskerarako gune gehiago zabaldu ziran eta dantza-taldearen jardurea dantzara mugatu zan.

Derion dantzan liburuaren 1.000 ale kaleratu dira eta Kultur Birikan eta Lainomendi taldean ipiniko dira salgai. Derioko Udalak diruz lagundu deutso

egitasmoari. “Oso behar interesgarria da, gu baino lehen egon diranei buruz gehiago ezagutzeko. Eta baliagarria be bai, dantza-talde bat zer dan baloreteko. Dantza-talde bat ez dalako beste barik egiten dan gauzea. Atzean, behar handia dago, eta sentimentua”.

Dana dala, liburuaz ez dagoala amaituta aitatu deuskue. Liburuaz egiteko informazioa biltzen hasi ziranean, hurbilengana jo eben, ezagunengana eta ezagunen lagunengana. Baina badakie herrian informazio gehiago emon ahal daben lagunak egon daitezkeza. “Gu prest gagoz entzuteko eta informazioa poz-pozik hartuko dogu”. Beraz, atea zabalik itxi dabe Derioko dantzen historia idazten jarraitzeko.

lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga
BI-515

servicio de urgencias
24h

Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak

94 455 56 19 Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama



LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILLIOAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ERRESERBAK

ZERBITZUA, ENPRESENTAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ARETXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAYA) • TELEFONOA/FAX: 94 455 64 87



t: Gaizka Eguzkitza / a: Kukubel taldea

“Taldea igazko otsailean aurkeztu genduan, eta martxoan egin genduan lehenengo ekitaldia. Baina beharrean urtebete lehenago hasi ginan. Gure ustez, herrian hutsune bat zegoan gazte eta umeei zuzendutako aisialdi-eskaintzari jagokonez, batez be 13 urtetik 18 urtera bitartekoentzat”. Amaia Emaldi Kukubel taldeko kidearen hitzak dira. Amaiaz batera beste zazpi gaztek osatzen dabe Kukubel taldea. “Gazteak 13 eta 14 urteaz hasten dira gauza barriak dastatzen, ikasten, guztiok egin dogun moduan. Eta guk beste aukera bat emon gura deutsegu, denpora libreaz gozetako orduan”, dino Eneko Lasarte beste kide batek.

Kukubel taldeko kideak boluntarioak dira eta ez dabe ezer be kobraten taldean aritzeagaitik. “Guk ikasi edo behar egiten dogu, eta horregaitik batzuetan ez dogu ekintzak antolatzeko denporarik. Hori dala-eta, ez dogu egutegi zehatzik, ahal dogun neurrian batzen gara, eta ekintzak antolatzen saiatzen gara”. Gurasoek oso jarrera ona adierazoten deutsee monitoreei. “Gurasoek aintzat hartzen dabe geure beharra, eta jakin badakie gure denpora librea musu-truk eskaintzen deutsegula. Gainera, umeak jagoteko persona bat kontratatea baino askoz

*“Beste aukera bat
emon gura deutsegu
gazteei, denpora
libreaz gozetako”*

Gazteek badaukie zer egin Larrabetzun

KUKUBEL AISIALDI TALDEA

Batzuek dinoe gazteak ez dirala ekintzaileak, baina Larrabetzun ez da halakorik gertatzen. Hori Bai gaztetxea aspaldian dabil beharrean herriari kalidade handiko aisialdia eskintzeko, eta igaz Kukubel taldea be sortu zan. Honeri esker, gazteek badaukie zer egin Larrabetzun.

Kukubiltxoren omenez

Taldeak Kukubel dau izena, baina hori aukeratzeko, eztabaida sutsua euki eben taldekideek. Batzuei Patakon gustau jaken, baina azkenean Kukubel aukeratu eben. Izena Kukubiltxo antzerki taldeari zuzendutako omenaldia da. “Kukubiltxo oso garrantzitsua izan zan kultura arloan, herrian ez eze, Euskal Herri osoan be. Eta guk taldea sortu genduan hain zuzen be, Kukubiltxo desagertu egin zan. Beraz, haren pertsonaietako baten izena hartu genduan, Kukubel. Izan be, pertsonaiak primeran islatzen ebazan taldearen ezaugarriak: emakumezkoa, naturazalea, animalia zalea, indartsua...”


merkeagoak gara (kar, kar)”, dino Enekok, txantxetan.

Kukubeleko lagunaren beharra ez da bape erraza. Alde batetik, “gatxa dalako 13-14 urteko gazteak erakartea”; bestetik, monitoreek be euren bizitzea dabelako, hau da, lagunak parrandaz joaten badira, eurek etxean gelditu behar, hurrengo egunean umeakaz ibili behar dabelako. “Dana dala, neska eta mutilakaz zagozanean, dana ahazten jatzu, geuk be primeran pasaten dogulako eurakaz”, aitatu dau Enekok.

Kukubelen esparru naturala Larrabetzu da, hangoak baitira monitoreak eta gazteak. Gainera, behin eta berriro sustatzen ditue hartu-emonak herriko beste taldeakaz. “Askotan laguntzea eskatzen deutsegu eurei edo, alderantziz, eurek guri, eta oso jarrera ona adierazoten deutsagu alkarri. Eta gure ekintzak antolatzeko orduan, kontuan hartzen dogu herriko ekitaldien egutegia, Kultur Bilguneak egiten dauana, noski!”



*“Gure moduko taldeak
beste herrietan sortzea
gustauko litxakigu:
aberasgarria izango
litzateke guztiontzat”*



Beste herrietara zabaldu

Larrabetzuar peto-petoak izan arren, batzuetan umeek beste herrietako lagunak edo senideak ekarri ditue. “Ez dago problemarik, aldez aurretik esaten badeuskue. Gu hemengoak gara eta horregaitik egiten dogu behar larrabetzuarrakaz, baina bardin deusku nondik datozan gazteak. Are gehiago, gure moduko taldeak beste herrietan sortzea gustauko litxakigu: aberasgarria izango litzateke bai guretzat, bai eurentzat, bai umeentzat”, esan deusku Nerea Sagarna beste kide batek.

Kukubel taldeak urtebete baino gehiago daroa martxan. Parte-hartzaileen kopurua zehaztea gatxa da, baina normalean 30 umeek hartzen dabe parte ekintzetan. Orain arte danerik egin dabe Kukubeleko lagunek: mendira eta hondartzara joan dira; euskerazko film bat ikusi dabe Sondikan; beste bat herrian bertan; hainbat tailer egin ditue, jolasak egin ditue herriko eta eskolako jaietan...

Beste behin kanpaldia egin eben eskolan. “Umeak oso gustura ibili ziran eta batzuek etxetik kanpo emon eben gaua lehenengo aldiz. Broma bat egin gura

izan geuntsen eta lagun batzuei deitu neutsen etorteko eta umeak ikaratzeko. Lagunak algaraka hasi ziran, petardoak botaten-eta, eta lapurrak izango balira moduan, umeen motxila batzuk ostu zituen. Ume batzuk negarrez hasi ziran, baina dibertigarria izan zan eta azkenean guztiok egin genduan barre. Baina zarata handiegia egin omen genduan eta auzokideren batek Ertzaintzari deitu eutsan. Dana kontau geuntsenean, poliziek be egin eben barre”.

Ekintza piloa egin dabe, bai, baina gehiago egiteko asmoa daukie. “Egin gura dogu: umeek eurek prestatutako afaritxua txokoan; beste kanpaldi bat; ibiltaldiren bat; baserritarraz egon gura dogu, umei lehen sektorea hurbiltzeko; paintball-ean jolastera joan gura dogu gazte-txoakaz...”. Larrabetzuko neska-mutilek agenda oparoa daukie datozan hilebeteotan, eta Kukubel taldeak horretarako jarraituko dau beharrean. Eta edozeinek taldean parte hartu gura badau, ateak irekita eukiko ditu. Gazteek eskertuko dabe.

ERREKA **ONDO**
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Alaia **fruta-denda**

Etxez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak

Telleri, 5
48170 Zamudio
94 485 05 85

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO



**berba
lagun**

INFORMAZIOA:
Telefonoa:
 635 75 35 95
E-mail:
 txorierri.berbalaguna@gmail.com
Bloga:
 www.aikor.com/txokoa/berbalagun
Antolatzaileak:
 TOTOAN TEEF
 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

Lagunen artean



Uda dator eta harekin batera ikasturtea bukatu egin da, baita berbalagunon ekintzak ere. Urte polita izan da eta denerarik egin dugu: izarrei begiratu diegu; perretxikoen bila joan gara, Bilboko Arte Ederren museoa bisitatu dugu; sukaldatzen ikasi dugu, taloa egiten ere bai... Baina batez ere primeran pasatu dugu lagunen eta senideen artean eta gainera, euskaraz egin dugu. Eskerrik asko gurekin ibili zareten berbalagun guztiei, eta datorren ikasturtean ere ekintzetan eta taldeetan parte hartzeko gonbidapena egiten dizuegu. Zuei zein lagun berriei. Urrian berriro elkartuko gara hamaika ekintzaz euskaraz gozatzeko.



Nolako jabea, halako animalia

José Ramón Galdona Lezamako albaitaria da. Kontsulta duela urte bi jarri zuen martxan Baserritarren Elkartearen egoitzan bertan. Lehen batez ere baserriko animaliak sendatzen zituen, baina azken bolada honetan etxeko maskotak dira bere "bezerorik" ohikoenak. "Batik bat txakurrak eta katuak ekartzen dizkirate, baina oraindik jarraitzen dut baserrietara joaten zaldia edo behiak ikustera", esan digu. Batzuetan animalia exotikoak ere eraman dizkiote, esate baterako, anakonda suge bat, baina José Ramón ez da horietan espezialista eta kasu horretan beste albaitari batera bideratu zuen kontsulta.

Baserriko eta etxeko animalien artean alde nabarmenak daude. Izan ere, jabeek era ezberdin batean jokatzeko dute eurenkin. "Katua eta txakurra familiaren beste kide bat dira, baina baserritarrek merkantzia izango balira moduan jokatzeko dute zaldiekin, txerrieekin eta behiekin". Ziurrenik jarrera biak dira okerrak. "Gaur egun guraso nagusiak egoitzetan ditugu, eta txakurrak, aldiz, gurekin ikusten du telebista, besaulkian eroso-eroso eserita. Ildo honi jarraituz, Londresera joan nintzen aurreko astean eta maskoten denda batean 1.200 librako lepokoa ikusi nuen salgai. Hori gehiegikeria da".

Helena Lombanak 10 urte baino gehiago daramatza albaitari Zamudioko eta Derioko Lur Langileen Etxean, Santimami auzoan. Helenak ere etxeko maskotak ikusten ditu gehienbat, baina animalia arraroak behin baino gehiagotan eraman dizkiote. "Behin piton suge erraldoi bat ekarri zidaten, baita belatz bat ere". Helenak untxiak, akuriak eta txintxillak ditu ikusgai kontsultan eta bere esanetan, erakusketa "izugarri gustatzen zaie umeei".

"Argi izan behar dugu nolako bizitza estiloa dugun, txakur-arraza guztiak berdinak ez direlako"

101 dalmata filmean txakurrek eta jabeek antzeko itxura dute. Hori gehiegikeria da ziur asko, baina baliteke errealitatetik hain urrun ez egotea. Txorierriko albaitari batzuek na jo dugu euren jardueraz egutzeko asmoz, eta gainera animaliak zaintzeari buruz hitz egin digute.

Helenak uste du nork bere burua eza-gutu behar duela, txakurra aukeratzeko orduan. "Batzuek ganorarik gabe erosten dute txakurra, adibidez, polita delako. Hala ere, argi izan behar dugu nolako bizitza estiloa dugun, txakur-arraza guztiak berdinak ez direlako. Hau da, txakurrek korrika egin behar dute, baina zenbat denbora izango du jabeak kaletik maskotekin ibiltzeko? Arraza batzuk oso aktiboak dira eta beste batzuk, aldiz, geldoagoak, eta horren arabera aukeratu behar dugu gure txakurra. Nolako jabea, halako animalia".

Txorierrin, non?

-Santimami:

Santi Mami auzoa, 1 (Zamudio).
94 454 13 77.

-Lezamako albaitaria:

Aretxalde, 21 bis (Lezama).
94 455 56 19.

-Henar Ortuondo:

Mikel Deuna Plaza (Derio).
94 454 28 21.

-Sondika klinika:

Urrutikosolo, 4 (Sondika).
94 453 52 08.

Sondikan ere badago albaitaritzaklinika bat. David García 14 urte daramatza herrian, eta duela hilabete batzuk Goiatz Urbietan hasi zen berarekin lanean. Goiatzen hitzetan, udan bereziki zaindu behar ditugu animaliak, bero handia dagoelako eta, parasitoak heda daitezen, baldintza egokiak daudelako. "Eltxoei aurre egin behar zaie, lepoko berezien bidez. Gainera arkasuso eta akainen kontrako tratamenduak ere komenigarriak dira, oso kutsakorrek direlako; hau da, txakurrek eta guri kutsatu ahal dizkigute parasitoak".



Etorkizuneko ikasgelak

t: Xabier Díaz, BTEKeko zuzendaria

Ikasturtea amaitu berri da. Azkeneko ikasketa-esprintak, azkeneko azterketak, leihotik begiratu, eguzkiak belarra berotu eta zozoei kantarazi dizkien bitartean... Herrialdeen hiriburuak, bigarren eta hirugarren deklinazioak, baldintzak eta subjuntiboak, errege zein politikarien izenak, Newton, logaritmoak...

Geletan urte dezente pasatu dugunok hara berriz sartuko bagina, ez dut uste sorpresa handirik jasoko gureen proiektoreen bat, arbela digital bat, beharbada, ordenagailua gelan... Ikasleen poltsikoak edo etxean dituzten baliabideak aztertuz gero, berriz, hori beste kontu bat izango litzateke: telefono adimendua, tabletak, ordenagailuak...

Baina zelakoak izango dira ikasgelak hemendik 10 urtera? Ikus ditzagun egongo diren berrikuntzetariko batzuk.

Errealitate emendatua

Mundu errearen gainean edo haren irudi baten gainean informazio gehiago jartzean datza. Horren bidez testuak, irudiak, bideoak eta grafikoak gehitu ahal dizkiete errealitateko irudiei telefono adimenduetan, tabletetan edo beste gailuetan. Esate baterako, betaurreko adimendua erabilita, ikusten ari garen mendikate bateko mendi bakoitzari izena eta altuera gehi geniezazkieke. Edo tabletaren kameraren bitartez herri baten irudia jaso eta horren gainean eraikin berezi bakoitzaren inguruko informazioa ipini, edo eraikin bat berritu badute, antzinako itxura bere gainean ipini eta bilakaera aztertu.

Gaming

Risk jokia ezagutuko duzue zuetako askok. Zergatik ez erabili horrelako joko bat geografia ikasteko? Ez al da xakea ara-

zoak konpontzeko gaitasunak lantzeko sistema egoki bat?

Ez da estrategia berri bat, ez, baina gaur egungo baliabide teknologikoek erraztasun handiak ematen dituzte jokoak hezkuntzarako estrategia moduan erabiltzeko. Zergatik ez, orduan, simulazio jokoak erabili, hirien jasangarritasun energetikoa ikertzeko? Edo rol jokoak, elkarlana bultzatzeko?

Ikasgela


Leku malgu bat izango da. Eremu ezberdinak definituko dira zeregin zehatzetarako: aurkeztu, ikertu, sortu, trukatu, garatu, partekatu... Eta bakoitzean beharrezkoak diren baliabide teknologikoak egongo dira. Adibidez, "aurkeztu" eremuan bertikalean zein horizontalean jartzeko moduko arbel handi bat egongo da, ukipen-pantaila duena, aurkezpenak egiteko zein talde lanerako; eta "ikertu" eremuan, laborategi erreal zein birtual bat, esperimentuak egiteko.

Aipatutakoak egia dira dagoeneko, eta martxan daude ikastetxe batzuetan. Orduan, zergatik ipini duzu 10 urteko epea lehen?, pentsatuko duzue. Egia esateko, ez dakit benetan 10 urte barru teknologia berri horiek gela guztietan izango ditugun... Ez dugu ahaztu behar teknologiek aukera berriak eskaintzen dituzten arren, aldaketa metodologikorik ez bada, horiek alferrik direla.

Bilatzaile batean *future classroom* idatzi eta milaka artikulua topatuko dituzue. Onak aukeratu eta, badakizue, zuen blogetan iritzia eman eta laburpenak ipini. Euskaraz, noski :-).

Iturriak:

https://en.wikipedia.org/wiki/Augmented_reality
Future classroom lab
Learning spaces



LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA
Torrelarregoti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Durangotik Iruñerako katea osotuko geunke erdaldun barik? Euskaraz bizi garanok bakarrik? Ez dot uste. Komunikabideetan, behintzat, ez ditu inork kontatu aparte, ez erdaldunen eta euskaldunen eskuak, ez eta, zenbat ziran ezker-eskuak edo zenbat eskuinak. Uharte Arakilen kate bakarra osotu genduan txorierritarrok.

2000-05-27an ospatu zan Iturenen Andres Iñigoren Euskaltzaindian sartzea. Ekitaldia ordu bitik gorakoa gertatu zan ze, sarrera hitzaldia, agintariak, domina emotea, heritarren parte hartzea-eta luze joaten da holakoetan.

Amaieran, entzuleen arteko Jesus Lezaun –intelektual eta politologo– erdaldunari itaundu neutsan:

–Un acto muy largo ¿verdad?

–Amigo, el impuesto que tenemos que pagar los que no hemos aprendido euskerara– erantzun eustan, ez ebalako ulertu ia ezer ordu biko saioan. Baina gizona hantxe zintzo-zintzo.

Gai honetan, ez da erreza ur gazia eta gozoa banatzea ze, ikur, sinbolo eta estrategiez gainera, adiskidetasuna, etxekoartekotasuna eta lankidetzat be aintzat hartu behar dira. Politika ez eze, psikologia, soziologia edo pedagogia be presente dira.

Bestalde, gai minbera be bada, eskuaz gainera, patrikerea eta mosua be garrantzitsuak diralak. Erdaldunak behar ditugu, lagundu egiten deuskue-



Gure erdaldunak

Geure esku dago

eta. Hor dogu, adibiderako, Aikor!lagun kanpaina, «1000 baietz!». Hor euskarazko aldizkarirako eskatzen jake dirua erdaldunei.

Horregaz guzti horregaz zer esan gura dogu, bardin dala euskaraz bizitzea

eta erdaldun izatea? Ez, ba; hori be ez ba! Guk euskaldun gura ditugu eta -euskara maitasun platonikoa dala uste daben bitartean- eskatzen deutsegu itsasontziaren lema eta norabidea geure eskuetan izteko, euskaraz bizi garanon eskuetan.

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

TXORIERRI MARMOLDEGIA



Sukalde eta bainugeletako harriak
Fatxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoiti ind., 7 B.P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami buzoia, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBATARRITZA

Nerea Pedrosa Cals. 517
COOP. SANABERRA ZAMUDIO 94010

Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Etxeko sukaldaritza

Orburuak gainerreak

*Maite Lekerika***Osagaiak (lau lagunentzat):**

- Orburu-pote bat (txikituak).
- Uruna.
- Arrautzak.
- Oliba orioa.
- Patata ertain bi.
- Kalabazin txiki bat (125 gramokoa).
- 100 ml esne.
- 50 g gurin.
- Gaztai birrindua (50 gramokoa).
- Gatza.

Prestetako area:

Orburuak uruneztatu, arrautzatik pasau eta prijidu egingo doguz. Labazpil baten ipiniko doguz. Pure bat egingo dogu orburuen gainetik botateko. Patatak eta kalabazina garbitu, eta txikituko doguz. Ura eta gatzagaz egosiko doguz 15-20 minutuan. Esnea, gurina eta gaztai birrindua gehituko doguz. Osagaiak irabiauiko doguz, eta nahastea orburuei gainetik botako deutsegu eta labara sartuko doguz, gorritu diran arte.

Entsalada epela mango eta gulakaz

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 2 letxuga kukulu
- Mango bat
- Pakete bat gula
- Pinaziak
- Berakatza
- Pipermina
- Oliba orioa
- Modena ozpina

Prestetako area:

Letxugea garbitu, eta mangoa zuritu eta xerratan ebagiko dogu. Berakatza be bai. Buztinezko kazuelatxu baten, edo zartagin baten, berakatza ipiniko dogu orio apur bategaz. Berakatza gorritzen danean, gulak botako doguz, eta bost minutu inguru eukiko doguz su motelean. Gulak surtan dagozan bitartean, eragingo doguz. Beste zartagin baten pinaziak gorrituko doguz.

Platera halan jarriko dogu: lehenengo eta behin letxugea ipiniko dogu; eta haren gainean, mangoa; eta mangoaren gainean, gulak. Ostean, pinaziak botako doguz. Azkenik, orioa eta Modena ozpina nahastu eta gainetik botako dogu.

Txorierrri
Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodriguez Mella

Milxine 6, behea - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885 - www.txorierrri.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

LIBRERÍA SONDIKA LIBURUDENDA
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)



Zer irakurri?


Josune Aurrekoetxea (Liluraturia)

Egilea: Sustrai Colina Akordarrementeria
Marrazkilaria: Jokin Mitxelena
Argitaletxea: Alfaguara Zubia
Orrialdeak: 110 orrialde. 15 kapitulu
Adina: 12 urtetik gora

Plazatik idazluma hartzera. Sustrai Colina bertsolaria idazle bihurtu da gazte-entzako eleberri labur hau idazteko. Gaztaroan, nerabezaroan agertzen diren arazoetan oinarrituta dago istorioa. Koadrila bat da protagonista; hiru mutil eta neska bateko koadrila da (Xabi, Joxemari, Manu eta bere arreba Ane). Hauen arazok kontatzen ditu liburuak.

Xabi neska gelakide batekin maiteminduta dago eta musu bat emateko ausartzeko denean, Keparekin musuka ikusten du. Biharamunean pintada bat agertzen da institutuko horma zuri batean "Obe Kepa gabe" diona (Handik dator liburuaren izenburua). Eta, noski, begira-

H gabe



da guztiak Xabierrengan zuzentzen dira honek ortografia akats handiak egiten dituelako eta egun horretan ikastetxetik ateratzen azkenetariko bat izan zelako.

Zuzendariak, Bulldog ezizena duenak, hamar eguneko epea ematen dio egileari bere burua salatzeke, bestela denen artean garbitu beharko dute horma. Koadrilakoek argi daukatena da eurek ez dutela ezer garbituko. Xabik bera ez dela izan komentatzen die lagunnei, baina nola jokatu mundu guztiak pintadaren egiletzat hartzen badu? Piper eginez, akaso? Nor izango da egile?

Bestalde, talde honen kide guztiek beste arazo batzuei ere aurre egin behar diete: Xabierren aitite gaixotzen da, Manuren gurasoak dibortziatzeko daude. Adin honetan gazteek sufritu ere sufritzen dute eta bere tokia bilatzen saiatzen dira. Eleberri laburra eta erraza da irakurtzeko, udako arratsalde bat pasatzeko.



Ikuskizunak

Derio

- > *Zipi eta Zape. Kanikaren kluba.* Uztailaren 4an, 22:30ean, Elotxelerriko plazan.
- > *Asterix eta Obelix. Maistatearen zerbitzura.* Uztailaren 11n, 22:30ean, Alonsotegi plazan (Zabaloetxe).



Irteerak

Zamudio

- > Mampodre-Riaño, Arroeta mendi taldeak antolatua. Uztailaren 4tik 6ra.

Bestelakoak

Derio

- > "Busti zaitez" esklerosi anizkoitza duten lagunen aldeko ekintza. Uztailaren 13an, 10:00etan, igerilekuan.
- > Tokiko agenda 21, DerioKOMunikazioaren eskutik. Uztailaren 16an, 19:30ean, Kultur Birikan.

Zamudio

- > Mungiako San Pedro jaietarako autobusa. Uztailaren 4an, Gazte Estazioak antolatua.

Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu naturalak



LAGATZU EGUNA EUSKAL JAIA 2014

Euskera da Euskal Herria

Ekainak

28

zapatua

Ekainak

27

barikua

**20:00 MUSIKA KALEAN,
DUODENO Taldeagaz**
Fernan eta Rafi tabernen
arteko plazan

11:00 CUP SONGa Agirre Lehendakari plazan eta Gorbeia kaleko plazan

11:30 HAMAIKETAKOA Gorbeia kaleko plazan

12:00 MURAL ERRALDOIA Eskola zaharreko patioan, danon arrastoagaz

ZEUK BE JARRI ZURE ESKUA!!!

12:30 CUP SONG SUGE LUZEA eginez, Leizaola Lehendakari plazara

13:00 KALE-JIRA-BIRA-DANTZA-POTEOA

Bertoko eta bertsolariak - Hiru bat eta Gazte Alai

MOTOR JOKOAK, Leizaola Lehendakari plazan **Zamudio Racing**
Elkartearen eskutik

15:00 HERRI BAZKARIA, eskola zaharrean 15 € nagusientzat, 10 € umeentzat
Txartelak herriko denda eta tabernetan salgai. Azken eguna
ekainaren 23a, astelehena

17:00 TALDEKA KANTAU, TABERNA IBILTARIAgaz,
JOKO ETA JOLASAK KULKI taldeagaz

20:00 ERROMERIA, TRIKIZIO taldeagaz eskola zaharrean

Zamudioko
talde
eta herritarren
ezinbesteko
laguntzea be
euki dogu



Animatu eta parte
hartu koadrileagaz
Jantzi zaitez antzinako
euskal erropakaz!

VP0 41

**BOE ETXEBIZITZA
ZAMUDION**

130.575€ + BEZ-tik hasita

A PARTZELA

20 3 logelakoak
1 2 logelakoak

C3 PARTZELA

19 3 logelakoak
1 2 logelakoak



2.rrren FASEA SALGAI!

INFORMAZIO GEHIAGO: TALLERI 3. ZAMUDIO

tfnoa: 94.657.93.73

